

# Hiri-tribuak, estetikatik harago

Janzkerak bereizten ditu. Taldeka zein bakarka ikus daitezke. Hirietan batez ere. Batzuek 'hiri-tribu' esaten diete metropolietako janzkera, tendentzia, estilo edo pentsaera bereko taldeei. Rockzaleak, hipsterrak, reggaetonzaleak, punkiak, skinheadak, skatersak, gotikoak, hippiak, emoak, rastafariak... zenbat hiri tribu ezagutzen dituzu?



## 1- Mangazaleak

Ioritz Gorritxu Motsukora mangazaleen elkarteko kidea da eta Gemma Marinek Bilbon Lupita izeneko denda berezi bat dauka. Biekin tribu urbanoei buruz hitz egin dugu “Tribu urbano bateko kide zara?” bideoan. Ikusi bideoa eta esan honako esaldi hauek egia ala gezurra diren:

	Egia	Gezurra
Ioritzek tribu urbano bateko kide dela esan digu.		
Gemma arropa, zaletasunak eta musika aipatu dizkigu.		
Ioritzek ustez, Motsukora elkarteko kideek ideologia bati jarraitzen diote.		
Motsukorako kide guztiei kamiseta 'frikiak' janztea gustatzen zaie.		
Ioritzek ustez, bera subkultura baten jarraitzailea da.		
Gemma berak hainbat estilo biltzen ditu.		
Ekitaldi guztietara moxorrotuta joaten dira Motsukorako kideak.		
Gemma ez zitzaion dendetan zegoena gustatzen.		

## 2- Tribu urbano bateko kidea zara?

Irakurri testua eta aukeratu hutsune bakoitzean aditz laguntzaile egokia.

Aukerak: **nuen / nintzen / naiz / zaizkio / du / ziren / dauka / dituzte / dira / dago**

Rockzaleak, hipsterrak, reggaetonzaleak, mangazaleak, skinheadak, bakalak, skatersak, gotikoak, hippiak, emoak, rastafariak, frikiak... Tribu urbano guztiak zerrendatzen hasiko bagina, ez genuke sekula amaituko. Egunetik egunera talde berriak sortzen \_\_\_\_**(1)**\_\_\_\_, moda geratzen ez den gurpil bat delako.

Tribu urbanoa ohitura, zaletasun, janzkera edo gustu berdinak dituzten pertsonen osatutako taldea da. Hiri handietan sortzen dira; bertan jende asko bizi denez, talde txikiagoetan biltzeko joera eragiten \_\_\_\_**(2)**\_\_\_\_, euren pentsamenduaren, ideologiaren, edo jarraitzen duten modaren arabera elkartuz.

Talde gehienak 80ko eta 90eko hamarkaden artean sortu \_\_\_\_**(3)**\_\_\_\_, eta gazteek osatzen dituzte, batik bat.

1988an, Michel Maffesolik 'Le temps des tribus' liburua idatzi zuen, eta 'tribu urbano' terminoa hortik sortu zela esaten dute adituek.

### Mutsukora Elkarte

"Janzkera edo ohitura antzekoak dituzten pertsonen talde bat da tribu urbanoa, eta subkultura baten jarraitzaileak dira", definitu digu Ioritz Gorritxok. Bera Bizkaiko Mutsukora mangazaleen elkartearen kidea da, baina ez du bere burua talde bateko kide gisa ikusten: "Nire ustez, tribu urbano bateko ideologia bat du, eta gure kasua ez da hori. Ni subkultura zehatz bateko jarraitzailea \_\_\_\_**(4)**\_\_\_\_, besterik ez". Mutsukorako kide batzuek kamiseta 'fikiak' \_\_\_\_**(5)**\_\_\_\_ eta mozturro festetara joaten dira, baina ez guztiak. "Gu gustu berberak dituzten pertsonekin elkartzen gara, erosoago sentitzen garelako", azaldu digu.

Ioritz txikitatik gustatu izan \_\_\_\_**(6)**\_\_\_\_ marrazki bizidun japoniarrak: "Urteekin, telesail berriak aurkitu ditut, eta, ez hori bakarrik, Japoniako historia, kultura eta bizimodua ere interesatzen zaizkit gaur egun". Une honetan, mangazaleak modan daude, baina Ioritzentzat bidea ez da hain erraza izan. "Jende askorentzat marrazki bizidunak ikustea umeen kontua da. Beraz, 16 edo 17 urte nituenean, arraroa nintzela pentsatzen zuten. Duela bost edo sei urte Mutsukorako kide \_\_\_\_**(7)**\_\_\_\_ eta bertakoek badakite edozein adinetarako telesailak badaudela. Gainera, modan dagoenez, gero eta gauza gehiago ditugu eskuragarri".



### Lupita, denda berezia

Bilboko Alde Zaharreko Somera kalean \_\_\_\_**(8)**\_\_\_\_ Lupita denda. Soineko bereziak, katiluak, poltsoak, eraztunak, oinetakoak... Hainbat gauza aurkituko ditugu bertan, baina

dendak badu erregina bat: Frida Kalho. Zergatik Frida? Erantzuna Gemma Marin gasteiztarrak eman digu, dendaren jabeak: “Niri dendetan ikusten nuena ez zitzaidan gustatzen. Horregatik, nire dendan gustatzen zaizkidan gauza guztiak biltzea erabaki \_\_\_\_\_(9)\_\_\_\_\_, tartean Frida”.

Gemmaren ustez, tribu urbanoak “arropan, zaletasunetan edo musikan antzeko gustuak dituzten pertsonen taldeak dira” eta horietako asko ditu bezero: “Gotikoak, rockeroak, punkiak, tatuatuak... Puntu artistikoa duen jendea etortzen da gehienbat.

Gainera, egia da Someran dauden denda gehienen eskaintza desberdina dela; ez \_\_\_\_\_(10)\_\_\_\_ Etorbide Nagusiarekin zerikusirik”.

Tribu urbano guztien artean berak ez du bere burua inon kokatzen, izan ere, “aldakorra” dela esan digu: “Nik nahi dudana janzen dut. Desberdina naiz eta ez naiz talde bateko kide sentitzen”.

Eta zu, tribu urbano bateko kidea zara? Zergatik? Ezagutzen duzu aipatu gabeko beste triburik? Zein identifikatzen dituzu zure inguruan?



### 3- Zaleak

Ariketa honetan, **-zale** atzizkia landuko dugu. Horretarako, ikusi testuan agertu zaizkigun adibideak: rockzaleak, reggaetonzaleak eta mangazaleak.

Zure ustez, zer esan nahi du atzizki horrek?

- Talde bat esan nahi du, kolektibitate bat.
- Gustukoa den zerbaitenganako zaletasuna esan nahi du.
- Gogoia esan nahi du, zerbaitetarako grina.

Saiatu atzizki horrekin bururatzen zaizkizun ahalik eta hitz gehien zerrendatzen.



## 4- Estetikatik harago

Aukera zuzena hautatu eta bete itzazu hutsuneak.

Marta Fernandezek eta Raquel Sanchezek 30 urte dituzte eta gothikotzat dute beren \_\_\_\_1\_\_\_\_. Kolore beltza dute \_\_\_\_2\_\_\_\_ eta ahal dutenean larruzko, likrazko, belusezko edota binilozko \_\_\_\_3\_\_\_\_ janzten dituzte: "Horrek ez du esan nahi egunero horrela janzten garenik, egunaren \_\_\_\_4\_\_\_\_ izaten da. Praktikoak gara eta beste edozein pertsona bezala, txandala edota praka bakeroekin irteten gara kalera, hori bai, beltzez ia beti", esaten du Martak.

Raquelek arropa, musika, liburu eta \_\_\_\_5\_\_\_\_ gothikoen denda bat du Bilboko Zazpi Kaleetan; Gothic Zone. Estatu osora saltzen ditu Europatik ekarritako produktuak. Bere esanetan, "gero eta jende gehiagok janzten du arropa gothikoa, besteak beste elegantea delako. Glamourra duen estiloa da eta gaur egun, esaterako, ezkontzatan gotikoz jantzi nahi duen jende kopurua handituz doa".

"Arrosa, fuchsia eta antzerako kolore biziak dira gure estiloaren \_\_\_\_6\_\_\_\_ nagusiak". Hala definitzen du Irene Orozko gazteak (18 urte) loliten estetika. "Hala ere, gureak ez du zerikusirik Vladimir Nabokovek idatzi zuen Lolita liburuarekin. Japoniatik datorren azpi-kultura da. Mendebaldean duela bi mende modan zegoen estilo neogotiko biktoriarra, Rokokoa eta Japoniako moda \_\_\_\_7\_\_\_\_ ditu tendentzia honek", azaldu digu.

Duela bizpahiru urte izan zuen Irenek \_\_\_\_8\_\_\_\_ mota horren berri, interneti esker. Gaur egun Bilbo inguruan bospasei bakarrik dira horrela janzten direnak.

Talde batekoa edo \_\_\_\_9\_\_\_\_ izan, denak bat datoz: ez dakite zerk eraman dituen horrela janztera. "Guk sentitzen duguna \_\_\_\_10\_\_\_\_ modu bakarra da hau", dio Irenek. Iritzi berekoa da Marta, izan ere, gotikoz janztean "norbera den bezalakoa sentitzen" da.

Julen Espeso Temblores taldeko abeslari eta gitarrista da. Psychobillytzat du bere burua, baina "punkia, heavya edota harri-jasotzailea banintz \_\_\_\_11\_\_\_\_ Julen izaten jarraituko nuke".

Iratxe Otolazaga Trakabarraka arropa markaren sortzaile eta diseinatzailearen ustez, janzkera gure \_\_\_\_12\_\_\_\_ "aurpegi" bat da. "Esan nahi duguna esateko" modu bat, "espresio" bat. Bere ustez, adin zehatz bateko fenomenoa. "Nortasuna guztiz garatu gabe dugunean gu bezalako jendearekin batzen gara, talde baten \_\_\_\_13\_\_\_\_ garela sentitzeko beharra dugu".

Julenen arabera, estetika %50 da: "Tupe erraldoi bat ikustean edonork daki zer zaren".

Talde bateko kide izatearen behar horrek bultzatuta, janzkera eta pentsaera bereko jendearekin batzeko joera du gizakiak. Irenek, esaterako, Interneta erabiltzen du beste lolitekin harremanetan jarri eta bere bizipenak besteekin \_\_\_\_14\_\_\_\_ "Lolita wonderland" bezalako foroak erabiltzen dituzte.





Askok hiri-tributzat jo arren, Martak argi du bera ez dela inolako taldetako kide. "Ni zabala naiz, edozein janzkeradun pertsonekin dut harremana, jende \_\_\_\_15\_\_\_\_ ezagutzen saiatzen naiz". Horregatik, hiri-tribuen kontzeptua "itxia" dela uste du.

Janzkera nortasunaren ispilu dela bat datoz gehienak. Hala ere, Martak eta Raquelek ez dute \_\_\_\_16\_\_\_\_ : "Gothikoak gara, baina ezer baino lehen Marta eta Raquel gara".

## Aukerak

1: ustea burua gogoa	5: aspergarri nekagarri apaingarri	9: horkoa bestekoa bestaldekoa	13: lekuko partaide buru
2: azkarren gogokoen nahiko	6: apaingarri ezaugarri izugarri	10: azaltzeko estaltzeko gordetzeko	14: elkartzeko trukatzeko banatzeko
3: itxura arropak azala	7: begiratzen bilatzen batzen	11: ere ea eta	15: ustezkoa betikoa ezberdina
4: bukaeran martxan arabera	8: jantzi janzkera erantzi	12: nortasunaren mozkorren jantzien	16: pentsamendurik ideiarik zalantzarik

Eta zu, izan al zara inoiz hiri-tribu bateko kidea? Edo ezagutzen al duzu hiri-tribu bateko kidea izan den norbait? Konta ezazu idatziz tribu urbano horietako bat zertan den: Nolako janzkera daramaten, nolako musika entzuten duten, zein diren haien erreferentziazko musika taldeak, non eta nola biltzen diren, zer ezaugarri duten, ideologiaren bat ba ote duten... eta bueltan kontatu klasekideei.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

# ERANTZUNAK

## 1- Mangazaleak

	Egia	Gezurra
loritzek tribu urbano bateko kide dela esan digu.		x
Gemmak arropa, zaletasunak eta musika aipatu dizkigu.	x	
loritzen ustez, Motsukora elkarteko kideek ideologia bati jarraitzen		x
Motsukorako kide guztiei kamiseta 'frikiak' janztea gustatzen zaie.		x
loritzen ustez, bera subkultura baten jarraitzailea da.	x	
Gemmak berak hainbat estilo biltzen ditu.	x	
Ekitaldi guztietara mozorrotuta joaten dira Motsukorako kideak.		x
Gemmari ez zitzaion dendetan zegoena gustatzen.	x	

## 2- Tribu urbano bateko kidea zara?

1. dira / 2. du / 3. ziren / 4. naiz / 5. dituzte / 6. zaizkio / 7. nintzen / 8. dago / 9. nuen / 10. dauka

## 3- Estetikatik harago

1- burua / 2- gogokoen / 3- arropak / 4- arabera / 5- apaingarri / 6- ezaugarri / 7- batzen /  
8- janzkera / 9- bestekoa / 10- azaltzeko / 11- ere / 12- nortasunaren / 13- partaide /  
14- trukatzeko / 15- ezberdina / 16- zalantzarik